



Recurso 5/2014 errekurtsoa Resolución 4/2014 ebazpena

Lehendakaria/Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Bokala/Vocal

M^a Aránzazu Arana Learte

Bokal idazkaria/Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

“Gipuzkoako Donostialdeko eta Bidasoaldeko (DB eremua) Lehentasunezko eta Oinarrizko sareetako errepideetan eta bizikleta bideetan artapen eta ustiapen lanak egitea” izeneko zerbitzu kontratua dela-eta (espediente: 2-O-3/2014), CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS SA eta API MOVILIDAD SA enpresek kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri dute Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuko diputatuaren 2014ko irailaren 9ko 102-C/2014 Foru Aginduaren kontra, zeinaren bidez kontratua esleitzen baitzaio MANTENIMIENTO DE INFRAESTRUCTURAS SA eta SERKOM GESTIÓN Y SERVICIOS GRUPO MOYUA SL enpresek osatu beharreko aldi baterako enpresa batasunari. Jarritako errekurtso horren gainean erabaki hau hartu du, aho batez, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa, 2014ko urriaren 15ean egindako bileran, non parte hartu zuten goian aipatutako kideek.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS, S.A. y API MOVILIDAD, S.A. contra la Orden Foral 102-C/2014, de 9 de septiembre, de la Diputada del Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias, por la que se adjudica a la Unión Temporal de Empresas a constituir por MANTENIMIENTO DE INFRAESTRUCTURAS S.A. y SERKOM GESTIÓN Y SERVICIOS GRUPO MOYUA S.L. el contrato de servicios de “*ejecución de diversas operaciones de conservación y explotación de las carreteras de la Red de Interés Preferente y Básica y de las vías ciclistas de la comarca de Donostialdea y Bidasoaldea (zona DB) del Territorio Histórico de Gipuzkoa*” (expediente 2-O-3/2014), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 15 de octubre de 2014, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENA.- 2014ko urriaren 1ean, idatzi bat sartu zen Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuaren erregistroan, Kontratu Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboari zuzenduta. Idatzi horren bidez, kontratazio-arloko errekurtso berezia jartzen dute, ebazpen honen goiburuan aipatutako egintzaren kontra, (...), CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS SA enpresaren izenean eta ordezkartzan, eta (...)

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- El 1 de octubre de 2014 tuvo entrada en el registro del Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias un escrito dirigido al Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales por el que (...), actuando en nombre y representación de CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS, S.A., y don (...), en nombre y representación de API MOVILIDAD, S.A., ambas empresas integrantes de la licitadora

jaunak, API MOVILIDAD SA enpresaren izenean eta ordezkartzan (bi enpresak dira CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS SA eta API MOVILIDAD SA enpresek osatutako aldi baterako enpresa batasun lizitatuak).

Errekurtsoa jartzeko idatziarekin batera, agiri hauek aurkezten dituzte: parte hartzaileen ordezkartza egiaztatzen duten agiriak, errekurtutako ebazpenaren kopia, eta alde aurretik errekurtsoa jartzearen berri ematen duen idatziaren kopia –Departamentuaren erregistroan irailaren 30ean aurkeztua–, hala agintzen baitu 44.1 artikuluan Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginak (aurrerantzean, Kontratuen Legea), 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak.

Errekurtsoa zertan funtsatzen den, arrazoiak eman ondoren, eskatzen dute deklaratu dadila gardentasunaren printzipioa urratua izan dela, ez baitaie erantzun beste bi eskaintzak aztertzeko errekurtsogileek egin dituzten eskaerei. Orobat eskatzen dute atzera eramane daitezela jarduketak; hain zuzen ere, lehenengo eskaera egin zuten egunera –2014ko irailaren 24a–, aukera izan dezaten espedientea osorik aztertzeko, indarrean dagoen arautegiak ezarri bezala, eta epe berri bat eman diezaieten dagokion kontratazio-arloko errekurtso berezia jartzeko.

Era berean, “Berebat diot” baten bidez eskatzen dute eten daitezela kontratazio-espedientearen izapideak, eta arrazoitzat aipatzen dute zer dion 43. artikuluan Kontratuen Legeak.

BIGARRENA.- Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuak, urriaren 6ko ofizioaren bidez, errekurtsoa bidali zion epaitegi honi, eta horrekin batera, Kontratuen Legeko 46.2. artikulua betez, beste agiri hauek ere: alde batetik, esleipenari buruzko foru aginduaren berri emateko errekurtsogileei egindako jakinarazpenaren kopia; eta, bestetik, Idazkaritza Teknikoak egindako txostena, zeinak ondorioztatzen baitu bidezkoa dela deklaratzeko errekurtsoa ez dela onartzekoa, legez ezarritako epetik kanpo aurkeztu izanagatik. Hori guztia urriaren 7an sartu zen Auzitegiaren erregistroan.

UTE CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS, S.A. y API MOVILIDAD, S.A., interponen recurso especial en materia de contratación contra el acto señalado en el encabezamiento de esta resolución.

Al escrito de interposición se acompañan los documentos que acreditan la representación de los intervinientes, así como copia de la resolución recurrida y del anuncio previo al que se refiere el artículo 44.1 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre (TRLCSF), efectuado mediante escrito presentado en el registro del departamento el día 30 de septiembre.

Tras exponer los motivos en los que fundan el recurso, solicitan que se declare vulnerado el principio de transparencia por no haberse atendido las peticiones realizadas por los recurrentes para el examen de otras dos ofertas, y que se retrotraigan las actuaciones al momento en que fue formulada la primera de dichas solicitudes, el 24 de septiembre de 2014, para que se les permita el examen completo del expediente, en los términos establecidos en la normativa vigente, y se les otorgue un nuevo plazo para formalizar el correspondiente recurso especial en materia de contratación.

Mediante otrosí solicitan asimismo la suspensión de la tramitación del expediente de contratación hasta que sea resuelto el recurso, invocando el artículo 43 TRLCSF.

SEGUNDO.- Mediante oficio de 6 de octubre el Departamento de Movilidad e Infraestructuras Viarias remitió el recurso a este Tribunal, junto con copia de la notificación de la orden foral de adjudicación realizada a las recurrentes y con el informe emitido por la Secretaría Técnica en cumplimiento del artículo 46.2 TRLCSF, en el que se concluye que procede declarar la inadmisión del recurso por haber sido presentado fuera del plazo legalmente establecido. Todo lo cual tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 7 de octubre.



ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Errekurtso berezi hau zerbitzu kontratu bat esleitzeko egintzaren aurka jarri da. Kontratu horren balio zenbatetsia 21.872.839,44 euro da, BEZik gabe.

Horrela, bada, kontuan harturik erregulazio harmonizatuari atxikitako zerbitzu kontratu batez ari garela, hots, Kontratuen Legeko 16.1.b.) artikuluan jasotakoetako bat dela, kontratazio-arloko errekurtso berezia jar daiteke errekurritutako egintzaren aurka, hala xedatua baitago 40. artikuluko 1.a) eta 2.c) apartatuetan. Eta errekurtso horretaz arduratzeko eskumena auzitegi honi dagokio, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortzeko eta arautzeko 24/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, 2.3.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

BIGARRENA.- Errekurtsoak dioenez, bete da errekurtsoa jartzeko epea, hamabost egun balioduneko epearen barruan aurkeztu baita, aurkaratutako egintza errekurtsogileei jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, Kontratuen Legeak 44.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Aitzitik, departamentu kontratatzailearen txostenak dioenez, hamabost egun balioduneko epea, kasu honetan, aurkaratutako egintzaren jakinarazpena igorri eta hurrengo egunetik aurrera kontatu behar da, ez jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Bada, esleipenari buruzko foru agindua 2014ko irailaren 11n igorri zenez, irailaren 29an amaitzen zen epea; hau da, errekurtsoa jarri baino bi egun baliodun lehenago. Errekurtsoa, beraz, ezarritako epetik kanpo aurkeztu denez, bidezkoa da deklaratzeko ez dela onartzekoa.

HIRUGARRENA.- Kontratuen Legeko 44.2 artikulua dioenez *“Errekurtso-prozedura idazki baten bidez hasiko da. Idazki hori, aurkaratutako egintzaren jakinarazpena 151.4 artikuluan adierazitakoaren arabera igorri ondorengo*

FUNDAMENTOS DE DERECHO

PRIMERO.- El presente recurso especial se interpone contra el acto de adjudicación de un contrato de servicios cuyo valor estimado es de 21.872.839,44 euros, IVA excluido.

Por lo tanto, tratándose de un contrato de servicios sujeto a regulación armonizada, de los contemplados en el artículo 16.1.b) TRLCSP, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.c) del artículo 40. Y la competencia para conocer del mismo corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.3.a) del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

SEGUNDO.- El recurso sostiene que se ha cumplido el plazo para su interposición porque se ha presentado dentro del plazo de quince días hábiles a contar desde el siguiente a la fecha en que se notificó a las recurrentes el acto objeto de impugnación, conforme a lo dispuesto en el artículo 44.2 TRLCSP.

Por el contrario, el informe del departamento contratante señala que el plazo de quince días hábiles debe contarse en este caso a partir del siguiente a aquél en que se remita la notificación del acto impugnado, no de aquél en que se reciba la misma. Y habiéndose remitido la orden foral de adjudicación el día 11 de septiembre de 2014, el plazo vencía el 29 de septiembre, esto es, dos días hábiles antes del día en que fue presentado, por lo que el recurso se ha presentado fuera del plazo legalmente establecido, y por ello procede declarar su inadmisión.

TERCERO.- El artículo 44.2 TRLCSP dispone que *“el procedimiento de recurso se iniciará mediante escrito que deberá presentarse en el plazo de quince días hábiles contados a partir del siguiente a aquel en que se remita la notificación*

hamabost egun baliioduneko epean aurkeztu beharko da”.

Kontratua esleitzeko egintzaz ari da, noski, egintzaren jakinarazpen baldintzak baitira 151.4. artikuluan arautzen direnak.

Delako epea kontatzeko irizpidea izatea erabakia lizitatzaillei igortzen zaienetik aurrera eta ez lizitatzailleek jasotzen dutenetik aurrera, hori aukera bat da Europar Batasuneko estatuei ematen diena Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007ko abenduaren 11ko 2007/66/EK Direktibak, hots, kontratu publikoen esleipen arloan errekurtsu prozeduren eraginkortasuna hobetzeko hartu zen direktibak.

Izan ere, direktiba horrek 1989ko abenduaren 21eko 1989/665/EEE Direktibako 2 quater artikuluari emandako idazkera berriaren arabera, Europar Batasuneko estatu bateko legeriak aukeratu ahal izango du, beste hautabide batzuen artean, hau ezartzea: esleitzeko agintearen erabakiaren aurkako errekurtsua gutxienez hamabost egun zibileko epean jarri beharra, erabakia lizitatzaillearen edo hautagaiari igorri eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Kontratuen Legeak 44.2 artikuluan adierazitako epea bat dator 156.3 artikulua errekurtsu mota hau jartzeko moduko kontratu bat formalizatzeko itxaronaldi gisa ezarritako epearekin: hamabost egun baliioduneko epea esleipenaren jakinarazpena lizitatzaillei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita.

Horixe da kontua, bat etorraraztea esleipenaren eta formalizazioaren arteko epearen kontaketa errekurtsu berezia jartzeko epearen kontaktarekin. Hala esan zuen Estatu Kontseiluak 499/2010 irizpenean, zeina eman baitzuen, gero 2010eko abuztuaren 5eko 34/2010 Legea izango zenaren aurreproiektuari buruz (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legea Europako Erkidegoko arautegiari egokitzeko eman zen lege hori): “(...) aukera horri esker, jakinarazpenen aldiberekotasuna bermatzen da, eta hori garratzitsua da errekurtsu berezia jarri ahal izatearen ondorioetarako eta

del acto impugnado de conformidad con lo dispuesto en el artículo 151.4”.

Se está refiriendo, evidentemente, al acto de adjudicación del contrato, cuyos requisitos de notificación son los que vienen regulados en el artículo 151.4.

El criterio de computar el plazo en cuestión a partir de la remisión de la decisión a los licitadores, y no a partir de su recepción por éstos, es una de las posibilidades ofrecidas a los Estados miembros en la Directiva 2007/66/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 11 de diciembre de 2007, adoptada precisamente para mejorar la eficacia de los procedimientos de recurso en materia de adjudicación de contratos públicos.

En efecto, según la nueva redacción dada por la citada directiva al artículo 2 quater de la Directiva 89/665/CEE, de 21 de diciembre, la legislación de un Estado miembro podrá optar por establecer, entre otras alternativas, que el recurso contra la decisión del poder adjudicador deba interponerse en un plazo de al menos quince días civiles a partir del día siguiente a aquel en que la decisión se haya remitido al licitador o candidato.

El plazo señalado en el artículo 44.2 TRLCSP coincide con el plazo de espera que el artículo 156.3 impone para poder formalizar un contrato susceptible de esta clase de recurso: quince días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a los licitadores y candidatos.

Y es que de eso se trata, de hacer coincidir el cómputo del plazo entre la adjudicación y la formalización con el del plazo para la interposición del recurso especial. Lo dijo el Consejo de Estado en su dictamen 499/2010, emitido en relación con el anteproyecto de lo que luego sería la Ley 34/2010, de 5 de agosto, dictada para adaptar la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, a la normativa comunitaria: “(...) esta opción permite garantizar la simultaneidad de las notificaciones, lo que tiene importancia a efectos de la eventual interposición del recurso especial y de la ulterior formalización



ondorengo kontratu-formalizazioaren ondorioetarako, bermatzen baita, lizitatzailerik eta hautagai guztiei dagokienez, errespetatu dela legeak galdatutako gutxieneko epea, bakarrik delako horientzat gutxienez dies a quo delakoa”.

LAUGARRENA.- Jakinarazpena posta ziurtatuaren bidez bidaltzen denean, bidalketa eguna da jakinarazpena Postetxean utzi den eguna, ez irteerako erregistrokoa. Irizpide hori hartu zuen Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Auzitegi Administratibo Zentralak 2013ko azaroaren 29ko 551/2013 Ebazpenean (laugarren oinarria), eta auzitegi hau bat dator irizpide horrekin.

Kasu honetan, egiaztatuta dago esleipenari buruzko foru aginduaren jakinarazpenek 2014ko irailaren 11ko irteera erregistroa dutela, eta egun horretan bertan utzi zirela Postetxean. Errekurtso berezia jartzeko zegoen hamabost egun baliaduneko epea irailaren 29an amaitzen zen, baina ez zen aurkeztu urriaren 1a arte.

Bidezkoa da, beraz, izapide gehiagoren beharrik izan gabe, errekurtsoa ez onartzea, epea kanpo jarri delako.

BOSGARRENA.- Errekurtsoan ez dugu antzeman, Kontratuen Legeko 47.5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, auzitegi hau errekurtsogileei isuna jartzera bultzatzen fedetxe edo ausarkeriarik.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

ERABAKITZEN DU

LEHENENGO.- Ez onartzea, garaiz kanpokoa izateagatik, CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS SA eta API MOVILIDAD SA enpresek jarritako kontratazio-arloko errekurtso berezia.

BIGARREN.- Altxatzea Kontratuen Legeko 45. artikuluan aurreikusitako esleipen egintzaren etete automatikoa.

Kontratuen Legeko 49.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka

CUARTO.- Cuando la notificación se envía por correo certificado debe entenderse que la fecha de remisión es la de depósito en Correos, no la de registro de salida. Este es el criterio adoptado por el Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales en su resolución 551/2013, de 29 de noviembre (fundamento cuarto), que este Tribunal comparte.

En este caso consta que las notificaciones de la orden foral de adjudicación se registraron de salida el día 11 de septiembre de 2014 y se depositaron ese mismo día en Correos. El plazo de quince días hábiles para interponer el recurso especial terminaba el 29 de septiembre, pero no fue presentado hasta el día 1 de octubre.

Procede, en consecuencia, sin necesidad de más trámites, inadmitir el recurso por haber sido interpuesto fuera de plazo.

QUINTO.- No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a las empresas recurrentes una multa en los términos previstos en el artículo 47.5 TRLCSP.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

ACUERDA

PRIMERO.- Inadmitir, por extemporáneo, el recurso especial en materia de contratación interpuesto por CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS, S.A. y API MOVILIDAD, S.A.

SEGUNDO.- Levantar la suspensión automática del acto de adjudicación prevista en el artículo 45 TRLCSP.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.1 TRLCSP, contra esta resolución cabe

administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Donostia, 2014ko urriaren 15a / San Sebastián, 15 de octubre de 2014.